**Euskadiko Industria Ondare Higigarriaren bildumako objektu jakin batzuk kargatzeko, garraiatzeko eta deskargatzeko zerbitzuak emateko kontratuaren klausula teknikoen agiria.**

**AURKIBIDEA**

1. Kontratuaren xedea.
2. Kontratuaren irismena.
3. Enbalajeak egitea.
    a. Enbalajeak.
    b. Funtsen garraioa.
4. Baldintza teknikoak.
    a. Txosten teknikoa.
    b. Lan programa.
    c. Giza baliabideak eta baliabide materialak.
5. Zerbitzua emateko baldintzak.

I. eranskina: lekualdatu beharreko funtsen zerrenda.



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

## 1. KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza teknikoen plegu honen eta bere eranskinen xedea da, behin Barakaldoko udalak Orkonerako bi pabiloiak laga ondoren eta bildumari eman nahi zaion ikuspegi berria kontuan harturik, ***Euskadiko Industria Ondare Higigarriaren bilduma osatzen duten objektu jakin batzuk Zorrotzaurreko Konsoni Lantegian kargatzeko, garraiatzeko eta Orkonerako (Lutxana, Barakaldo) kokaleku berrian deskargatzeko*** zerbitzuen kontratazioa arautuko duten prestazioen irismena eta baldintzak zehaztea eta arautzea.

## 2. KONTRATUAREN IRISMENA.

Jarraian zehazten da enpresa esleipendunari eskatuko zaion zerbitzuaren irismena. Enpresa esleipendunak kalitate, eraginkortasun eta efizientzia maila handienekin emango du zerbitzua, eta une oro bermatuko du funtsen babes eta zaintza egokia.

Kontratatu beharreko zerbitzuak honako zerbitzu hauek eman eta lan hauek egingo ditu, horiexek baitira kontratuaren xede eta lan horiek osatzen baitute zerbitzuaren prestazioa:

Zorrotzaurreko (Zorrotzaurreko erribera, 18; 48014-Bilbo) industria ondare higigarrien biltegian dauden objektuak bereizi, hala badagokio enbalatu eta markatuko ditu. Beti saileko teknikariek emandako jarraibideen arabera eta haien kontrol eta ikuskaritzapean. Enpresa esleipendunak aukeratuko eta jarriko ditu objektuak enbalatzeko elementuak. Era berean, Orkonerako hegoaldeko pabiloian (Andikollano, 33; 48009 Barakaldo) proposatutako lekuan utziko eta desenbalatuko ditu.

Funtsak eskuz edo horizontalean zein bertikalean garraiatzeko bitarteko mekanikoekin aterako dira, betiere beharren eta esleipendunak proposatutako eta sailak onartutako planteamenduaren arabera.

Aurkeztutako txostenarekin bat etorrita, funtsak garraio ibilguetan kargatzeko lana saileko langileen jarraibideak aintzat hartuta bideratuko dira, betiere kontrol, antolamendu eta segurtasun baldintza egokietan.

Lekualdatu beharreko elementuen izaeraren eta esleipendunaren proposamenaren arabera bideratuko da garraioa, horretarako bereizitako eta



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

aukeratutako ibilgailuetan. Hori guzti hori lekualdatu beharreko funtsen tipologiaren eta kargaren arabera.

Funtsak deskargatzeko eta dagokien lekura eramateko lana kontrolpean egingo da, eskuz edo bitarteko mekanikoak erabiliz, ondasunaren beharraren eta esleipendunak proposatutakoaren arabera. Lan hori saileko teknikarien kontrolpean eta ikuskaritzapean bideratuko da, funtsak pabiloian barrena banatzeko plana kontuan harturik.

Sor litezkeen hondakinak behar bezala aterako dira.

1. eranskinean daude zerrendatuta garraiatu beharreko funtsak. Aldaketak izan daitezke, baina izatekotan, garraiatzeko ezaugarri bertsuak (pisua, bolumena eta kokapena) dituzten piezekin ordezkatuko dira.

## 3. ENBALAJEAK EGITEA.

### a. Enbalajeak.

Obren izaeraren, tamainaren eta pisuaren araberakoak izango dira enbalajeak, baita haien beharren araberakoak ere.

Espezifikoki kontrakoa adierazten ez den bitartean, pieza bakoitzeko enbalaje bat egingo da. Enbalaje hori erretraktilatze bakun bat izan daiteke, edo beharrezkoak diren elementuez eta kolpe aringarriez hornituriko kutxak izan daitezke. Kutxetan edo edukiontzietan hainbat obra enbalatzea aurreikusten bada, eskaintzan arrazoitu egin beharko da proposamena, eta saileko zerbitzu teknikoen oniritzia jaso beharko du.

Material geldoekin, ez erasokorrekin eta ez kutsatzaileekin enbalatuko dira piezak, eta kaltetu ditzaketen kolpeak eta bibrazioak saihesteko behar besteko aringarriak izango dituzte, betiere funtsen izaeraren arabera.

Enbalatutako piezak, behar izanez gero, posizioa, hauskortasuna eta aire zabalean babesteko beharra adierazten duten zeinu konbentzionalekin errotulatuta egongo dira. Edukia identifikatzen duten markak gutxienez bi fronte txikitan egongo dira errotulatuta. Nolanahi ere, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren jarraibideetara egokituko da enpresa.



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

Enpresa esleipendunak jarriko ditu piezak enbalatzeko beharrezkoak diren material txikiak (zinta itsaskorrak, itsasgarriak, errotulagailuak... edo behar direnak). Enbalajeetako batek kalteren bat nozitzen badu, esleipendunak hura konpontzeko edo, hala badagokio, ordezkatzeko konpromisoa hartzen du, betiere enbalajearen baldintza onenak bermatzeko.

Behin aldez aurretik Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin egutegia finkatu ondoren, enpresa esleipenduna izango da funtsak helmugan desenbalatzeko lanaz arduratuko dena. Zuzendaritza horren jarraibideak kontuan hartuta kokatuko dira piezak. Desenbalatu ondoren, esan bezala, enpresa esleipenduna arduratuko da enbalatzeko materialak jasotzeaz eta behar den lekura eramateaz.

**b. Funtsen garraioa.**

Enpresa esleipendunak antolatuko du, bere Txosten Teknikoaren eta Sailaren jarraibideen arabera, funtsak jatorrian jasotzeko, garraiatzeko eta helmugan emateko lana. Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta enpresa esleipendunaren artean adostutako egutegiaren arabera antolatuko da garraio zerbitzua. Egutegi hori agirietan jasotako arauen arabera landuko da, baina aldaketak egin ahal izango dira bi aldeek adostuta. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak proposatzen dituen aldaketak nahitaez beteko ditu enpresak.

## 4. BALDINTZA TEKNIKOAK.

Proposamenak onartuak izan daitezen, lizitatzaileek nahitaez adierazi behar dute honako hauek dauzkatela:

- Enpresaren MDLE garraio txartela.
- 2.000 kg-tik gorako GPB duen ibilgailu bakoitzeko MDL garraio txartel bana.
- Kontratazio honen xedeko zerbitzua emango duen enpresaren GO txartela (Garraio Operadorea).

Ondoko puntuetan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu behar dute enpresa lizitatzaileek:

**a. Txosten teknikoa.**

Dokumentu honek jasoko du eskatutako zerbitzua burura eramateko lan metodologia, Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko sistema



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

zehaztuko du, eta jardueraren nondik norakoak jakinarazteko eta gorabeheren berri emateko protokoloak definituko ditu.

**b. Lan programa.**

Dokumentu honek eskatutako zerbitzua emateko proposamena deskribatuko du, eta horretarako zehatz deskribatuko ditu lizitatzaileak bere proposamenean proposatzen dituen faseak (lanaldietan multzokatuak) eta fase bakoitzean egin beharrekoak. Nolanahi ere, kontratua gauzatzeko epeari, 3 hilabetetan zehaztutako epeari, egokituko zaio programa hori, kontratuaren xedeko zerbitzua ematen hasten den egunetik kontatzen hasita, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikarien lanegunetako lan ordutegiarekin bat etorriko diren lanaldiekin (8:00etatik 17:00ak arte), astelehenetik ostiralera arte.

Fase bakoitza eta haietako bakoitzean egin beharreko lanak deskribatzeaz gain, lizitatzaileek fase bakoitzari begira (lanaldi multzoak) proposatutako eta deskribatutako giza baliabideak (ekipoak osatzen dituzten langileen kopurua eta haien kalifikazio edo kategoria profesionala), funtsak kargatzeko eta deskargatzeko mugikortasun elementuak eta garraio elementuak (ibilgailu mota, horien indarra, gehieneko karga erabilgarria kg-tan...) deskribatuko ditu Lan Programak.

**c. Giza baliabideak eta baliabide materialak.**

Kontratuari atxikiriko giza baliabideez eta baliabide materialez harago, zerbitzu hau ematean erabili litezkeen giza baliabideen, materialen eta instalazioen zerrenda zehatza emango da, hala behar izanez gero.

Garraiatu beharreko objektuen kudeaketarako, kontrolerako eta jarraipenerako edo trazabilitaterako beste tresna batzuk baldin badituzte eta kontratatu beharreko zerbitzua gauzatzeko proposamenean bitarteko tekniko gisa eskaintzen baldin badituzte, zehatz-mehatz deskribatu behar dituzte haien izaera, erabilera ezaugarriak eta prestazioak Baliabide Materialak dokumentuan

Lekualdatuko diren objektuen ezaugarri berezientzat egokiak diren baliabideak eskainiko dira.

Kontratuari atxikiriko materialak eta enpresa lizitatzaileek eskaintzen dituztenak aurkeztutako proposamenen zati izango dira, eta beraz, esleipendunarekin sinatzen den kontratuaren funtsezko baldintzak izango dira



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

horiek. Horrexegatik, hain zuzen ere, esleipendunak eutsi egingo die horiei zerbitzua gauzatzen ematen den denboran zehar.

Hala bada, hauexek dira lizitatzaileen proposamenean jasota behar duten eta proposamena onartua izateko eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta ibilgailuak edo mugikortasun osagarriak:

**Gutxieneko langile zuzkidura.**

4 langile

2 gidari

Makina (Fenwick motako) gidari bat objektuak kargatzeko eta bertikalean goratzeko.

Gutxienez 4.000 kg-ko kargari eusten dioten garabi autosostengatzaileen manipulatzaile 1.

Teknikari koordinatzaile 1.

Langile guztien izena eta bi abizen emango dira, eta Teknikari Koordinatzailearen izena, bi abizen eta zerbitzua ematean erabiliko duen mugikorraren zenbakia emango dira.

Zerrenda horretan profil profesionalei, esperientziari eta enpresan duten antzinatasunari buruzko datuak emango dira.

Era berean, Klausula Administratibo Berezien Agirian jasotzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da kontratuari atxikiriko teknikari koordinatzailearen esperientzia balioesteko eta egiaztatzeko, dokumentazio hori aintzat hartuko baita kontratua esleitzeko irizpide kualitatibo gisa.

**Ibilgailuak. Gutxienez eduki beharrekoak.**

- Esleipendunaren ibilgailu txiki 1 Teknikari Koordinatzailearen joan-etorrietarako.
- Igogailu plataforma batez hornituriko bi ibilgailu.
- 5.000 kg bitarteko kargari eusteko ibilgailua garabi autosostengatzaile motorizatuarekin.
- 24 tonatik gorako kargak garraiatzeko ibilgailu propioa.
- Formatu txikiko objektuak mugitzeko orga arinak.



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

- Ibilgailu jasotzaile bat (Fenwick motakoa) 3,80 m bitarteko desplazamendu bertikalak egiteko eta 2.000 eta 3.000 kilo bitarteko kargari eusteko.
- Paletak horizontalean garraiatzeko 2 makina, gutxienez 1.000 kg-ko kargari eusteko eta zoruaren mailatik 8 cm-tan goratzeko.

Muntatzeko eta desmuntatzeko lanabesak.

OHAR OROKORRA.- Behar izanez gero erabiliko diren paletak Europar motakoak izango dira (EPAL. UNE-EN 13698-1 araua), 1.200 x 800 mm-koak, mugitzean 1.500 kg-ko kargari eusteko euskarriarekin, eta geldirik dagoenean 4.000 kg bitarteko kargari.

**Ekipamendua.**

NBE indibidualak.

Eskularruak (karga lanak eta funtsak manipulatzekoak bereizita). Enpresaren uniformea eta Identifikazio pertsonala.

Instalazioetarako nahitaezko bisitaldia. Kontuan izanik jatorriko eta jomugako eraikinen bereizgarriak, haien barruko mugikortasun, karga aldeko ibilgailuen zirkulazio eta karga lanetarako mugikortasun baldintzatzaileak, eta jomugako biltegiko instalazioak identifikatzeko eta aztertzeko premia, lizitazio eta esleipen prozesuan parte hartzen duten enpresei exijitzen zaie, Lan Programa eta Txosten Teknikoa landu dezaten, idatziz eskatzeko jatorriko eta jomugako instalazioak nahitaez bisitatzeko erreserba.

Bisitaldia egiteko eskaera hori Kultura Ondarearen Zuzendaritzari helarazi behar zaio (erreferentziazko posta elektronikoa karatulan dago adierazita) lizitazioaren iragarkia argitara ematen den egunetik kontatzen hasita hurrengo bost (5) laneguneko epean, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emango du.

Baliabide materialen zerrendak zehatz-mehatz deskribatuko ditu garraio eta mugikortasun elementu guztien ezaugarri teknikoak, baita logistika normalizatzeko eta arautzeko egoera berezietan bezeroaren esku jartzen diren instalazioenak ere.

## 5. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK.

Kontratuaren xedeko zerbitzuak zehatz-mehatz beteko ditu baldintza teknikoen agiri honetan eta bere eranskinetan jasotako baldintzak. Baldintza



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

tekniko hauekin eta bere eranskinekin kontrajartzen ez diren alderdietan, esleipendunaren eskaintzaren arabera emango da zerbitzua eta, hala badagokio, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako jarraibideen arabera.

Enpresa esleipendunak Kultura Ondarearen Zuzendaritzari lagunduko dio zerbitzua emateko beharrezkoak diren lizentzia edo baimen guztiak lortzeko, eta kontratua gauzatzerakoan eta funtsak jasotzerakoan, garraiatzerakoan eta ematerakoan indarrean dauden lege edo araubide arloko formalitateak, zibilak, administratiboak, zerga alorrekoak edo beste batzuk betetzeko.

Enpresa esleipenduna behartuta dago zerbitzua bere eskaintzan deskribatutako langileen bidez eta hartan adierazitako ibilgailuekin eta baliabide teknikoekin ematera, eta ez zaio mugarik jartzen azpikontrataziorako aukerari.

Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatuko du, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren esanetara egongo da une oro, eta erabakiak hartzeko nahikoa ahalmena izango du esleipenduna ordezkatzeko kontratuaren xedeko gaietan.

Esleipendunaren arrisku eta menturara emango da zerbitzua. Esleipendunaren konturakoak eta arriskukoak izango dira garraioaren xede diren funtsek enbalaje, garraio eta desenbalaje faseetan doloz edo zabarkeriaz jasan ditzaketen kalte eta galera guztiak.

Gasteizen, 2021eko ekainaren 2an.

Sntua: Armando Llamosas Rubio
Kultura Ondarearen Teknikaria



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

# 1. ERANSKINA
## Lekualdatu beharreko funtsen zerrenda



Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 94 90/94 – Fax 945 01 94 91 – e-mail zentroa@euskadi.eus

| INB. SBK. | IZENA |
|---|---|
| 6 | Babcock & Wilcox galdararen planoa |
| 8 | Labe altuko maketa |
| 9 | Bessemer bihurgailuaren maketa |
| 80 | Pavesi P4 artilleriako traktorea |
| 84 | Alfa josteko makina |
| 87 | Etoile imprimatzailea. |
| 89 | Moldekatze-buztinezko errota |
| 90 | IBM 1130 ordenagailua |
| 93 | IBM/029 txartelen zulatzailea/interpretea |
| 94 | IBM/82 txartelen sailkatzailea |
| 125 | Aho- kurrika |
| 157 | Gozokiak trokelatzeko makina |
| 174 | Orga isuria |
| 178 | Paper-errota |
| 179 | Gabia - Titan - 270 neumatiko |
| 180 | Balezta-mailua, M13 zk. |
| 181 | Ijezteko makina |
| 183 | Imprimatzeko makina |
| 184 | Kordoi-kableatzeko makina 1+14 -165 saskia |
| 197 | Somua Autobomba-kamioia |
| 198 | Eskuzko kordoiduna |
| 199 | Zuntz gogorretarako oihal zirkularra |
| 205 | Turbina-alternadore taldea |
| 206 | Foto-konposizio monofotoko makina |
| 210 | Erorketa askeko mailua |
| 233 | ABC markako konpresorea, B 101 modeloa, 2685 zk. |
| 268 | Telefonoa |
| 280 | Siemens Halske zentral elektrikoaren sinkronizazioa |
| 281 | Zentral hidraulikoaren banaketa-koadroa |
| 305 | Yeregui diesel motorra |
| 309 | Galdaketarako moldekatzeko makina, SPD/1 motakoa |
| 319 | Fundidora Goss |
| 320 | Fresatzeko makina Goss |
| 327 | Teletipo Diario Hierro |
| 328 | Diario Hierro egunkariaren azken azala duen adarra |
| 333 | Diario Hierroko teila |
| 342 | Lurrun-ponpa |
| 343 | Kakao likidoa lortzeko instalazioa |
| 361 | Alsthom Tripolar etengailua |
| 362 | Siemens kontaktore trifasikoa |
| 379 | Kakao-errota |
| 383 | LUBE motozikleta |
| 400 | Minerva Phoenix Presse II |
| 410 | Mansfeld 30920 prentsa |
| 455 | H. Jullien inprimategi tipografikoko makina |
| 474 | Gaseosa botilatzeko makina. Favorita eredua |
| 477 | Lurrun-ponpa Azucarera |
| 479 | Sangerhausen jasotze-ponpa |
| 497 | Garrote-ehungailua edo anezka |
| 501 | Prentsa hidraulikoa |
| 503 | Galdaren planoa |
| 512 | IBM/029 txartelen zulagailua |
| 654 | SOMME lata-itxigailua |
| 665 | Windsebrant inprimategiko makina |
| 731 | ZANG korapilo-sareko ehungailua |
| 737 | Ajuria 0 trilladorea |
| 796 | Lurrun-txigorra |

| | |
|---|---|
| 956 | Zurezko komodin bikoitza |
| 994 | Suteak eteteko kamioia |
| 995 | Bizkaiako Labe Garaien Sestaoko fabrikako Cok eta azpiproduktuen banaketaren eskema |
| 1000 | Lurrun-makina. Fabrikazio-zenbakia: 1868. |
| 1001 | 9 atmosferako Lincoln galdara. |
| 1064 | Suteen aurkako ponpa |
| 1067 | Bona Herber inprimategiko makina, 2280 zk. |
| 1070 | Bizkaiko Labe Garaien anagrama eta letrak |
| 1075 | BH bizikleta |
| 1076 | Mostradorea |
| 1090 | Okulistaren panela |
| 1123 | Harri litografikoa |
| 1127 | Harri litografikoa |
| 1129 | Harri litografikoa |
| 1199 | Zapata-hormen tornu kopiatzailea |
| 1202 | Josteko makina 7-31.AA558694 |
| 1248 | Inprimategiko errotulua |
| 1254 | Chibalete |
| 1316 | Galerin |
| 1332 | Bizkaiko Labe Garaien banderak |
| 1361 | Galdaketa-ereduak |
| 1640 | Argazki kamera |
| 1648 | Bizkaiko Labe Garaien estanteria |
| 1720 | Monotypia |
| XX | Artiach-eko telefonogunea |